

# KANPO- MERKATARITZAREN ERREGIONALIZAZIOA

ZURIÑE EMBID ZUBIRIA

Eusko Jauriaritzaren Ekonomi Ikerketa eta  
Metodoetarako Zuzendaritzako Ekonomista

Palabras clave: Comercio exterior, comercio regional, exportaciones, importaciones.  
Nº de clasificación JEL: P33, P45, R12.

## 0. SARRERA

Edozein ekonomia-kanpomerkataritzaren munduaren enparatuarekiko ondasun eta zerbitzuen eragiketek osatzen dute.

Definizio hau erregio mailan aplikatuz gero beste nazio guztiekiko eragiketak eze-zik, erregioa kokatuta dagoen Estatuko beste erregioekikoak ere hartu behar dira kontutan.

Aduana ezaren ondorioz, kanpotik eta kanporako fluxuen neurketa oso zaila izaten da, batez ere erregioartekoena.

Azkenengo fluxu hauek hautemateko ikerlanak Input-Output Taulak burutzearekin batera gertatu dira batipat. Taula hauek eskeintzen dituzten erregioarteko merkataritzari buruzko datuak ez dira errealak, baizik eta zenbait inkestaren bidez estimaturik (inkestak industriala,...). I-O Taulak bost urteko aldizkotasunarekin egiten ohi dira, heuren elaborapenaren zailtasun maila oso handia izaten delarik. Honen ondorioz atzerapen handiak gertatzen dira emaitzen argitalpenean.

Honez gain, eta 1982 urtetik aurrera, Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Kontu Ekonomikoak elaboratzen ditu urtero. Taulen aldean iturri honek daukan abantaia bakarra urterokoa izatea da, zeren erregioarteko merkataritzari

buruzko datuak ere estimatuak bait dira eta erabilitako desagregazio maila txikiagoa bait da.

Erregioarteko fluxu ekonomikoak alde batera utzirik, beste nazio guztiekiko ondasun trukaketei buruzko datu zehatzak Aduanetako Zuzendaritza Orokorra (A.Z.O.) eskeintzen dizkigu. Bildutako datu hauek errealak dira, ez estimaturik, eta produktu-motari zein jatorri-helburu geografikoari dagokienez oso desagregazio maila handia erabiltzen du.

Estatistika iturri honen emaitzak oso atzerapen gutxiarekin eskura daitezke, A.Z.O.k hileroko batu eta informatizatu egiten bait ditu.

Erregioarteko kanpo-merkataritza osoari buruzko informazioa ez eman arren, aipatutako ezaugarri guztiak kontutan harturik, oso interesgarritzat jotzen ditugu Aduanetako estatistikak.

1 koadroan 1984eko E.H.K.A.ko Kontu Ekonomikoetatik ateratako zenbait emaitza azaltzen ditugu, Estatutik at burututako ondasunen eragiketen garrantziaz argigarri gerta daitezkeelakoan.

Ikusten dugunez, atzerrian egindako erosketen eta salmenten balorea barneko ondasunen produkzioaren gaineko % 17,2 eta % 18,6a izatera heldu ziren hurrenez hurren.

1. Koadroa. **E.H.K.A.ko Erregioarteko eta Nazioarteko Merkataritza (1984)**

|                               | Ondasun eta<br>Zerbitzu<br>Produkzioaren<br>gaineko % | Ondasunen<br>Produkzioaren<br>gaineko % | Ondasun-Inport.<br>edo Esportazio<br>guztizkoen<br>gaineko % |
|-------------------------------|-------------------------------------------------------|-----------------------------------------|--------------------------------------------------------------|
| <b>ONDASUNEN INPORTAZIOAK</b> |                                                       |                                         |                                                              |
| — Estatuaren enparatua .....  | 21,50                                                 | 32,61                                   | 65,52                                                        |
| — Atzerria .....              | 11,32                                                 | 17,16                                   | 34,48                                                        |
| Guztira .....                 | 32,82                                                 | 49,77                                   | 100,00                                                       |
| <b>ONDASUNEN ESPORTAZIOAK</b> |                                                       |                                         |                                                              |
| — Estatuaren enparatua .....  | 30,13                                                 | 45,69                                   | 71,07                                                        |
| — Atzerria .....              | 12,26                                                 | 18,60                                   | 28,93                                                        |
| Guztira .....                 | 42,39                                                 | 64,29                                   | 100,00                                                       |

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomi Ikerketarako Zuzendaritza. E.H.K.A.ko Kontu Ekonomikoak -1984 (E.E.-E.).

Datu hauek aurrean ditugularik, argi dago A.Z.O.k eskeinetako informazioa lagungarria dela E.H.K.A.ren ekonomia aztertzeko.

Gure erosle eta hornitzaile nagusiak, saldu edota erosten dugun produktu-mota, kanpo merkatuen gorabeherak, ... guzti hau ezagutzeak bidea ematen digu erregio ekonomiaz gehiago jakiteko, eta honen ondorioz, agente ekonomiko guztiek hobeto oinarritutako erabakiak har ditzaten etorkizuneko hazkundera bideratzeko.

Artikulu honen lehenengo atalean, A.Z.O.k emandako informazioaz baliatuz, Estatu mailako kanpo-merkataritzan E.H.K.A.ri dagozkion eragiketak zehazten ahaleginduko gara, honetarako erabilitako metodologia azalduz.

Ondoren, honela lortutako datuak sektoreka ematen diren beste magnitude ekonomiko batzurekin konparatzea helburua izanik, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomi Ikerketarako Zuzendaritzak egindako Arantzel-Nomenklatura eta Iharduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren (I.E.S.N) arteko baliokidetasunak zehazteko lanaren berri emango dugu.

## 1. KANPO - MERKATARITZAREN ERREGIONALIZAZIOA.

### 1.1. Metodologia.

A.Z.O.k kanpo-merkataritzaz eskeintzen dituen informatizatutako datuetatik ondoko informazioa azpimarra genezake:

- Operazio-mota: Inportazioa ala Esportazioa.
- Aduana, nondik ondasunak sartu ala irten diren.
- Esportatzaile edo inportazioaren destinatzailearen I.F.Z. (Identitate Fiskalaren Zenbakia) edo N.A.N. zenbakia, pertsona juridikoa ala fisikoa den araberean.
- Esportazioaren jatorrizko probintzia. Honetaz esportatutako merkantziak batu, atera edo elaboraturik izan diren lekua ulertzen delarik.
- Inportazioen deklaraturako helburu-probintzia.
- Merkantziaren jatorri-herrialdea inportazioen kasuan eta helburu-herrialdea esportazioenean.

- Inportazioen etorri-herrialdea, zeinetatik merkantziak Espainiako Estaturantz bidaliak izan diren.
- Produktu-mota, Arantzeleko posizio mailaren arabera sailkaturik.
- Pisu gordina.
- Balio estatistikoa: C.I.F. balioa inportazioetarako, F.O.B. balioa esportazioetarako.
- Dibisa.
- Aduana-erregimena.
- Esportatzaile edo inportatzailearen helbide fiskalaren probintzia pertsona juridikoa bada eta deklaraturakoa pertsona fisikoen kasuan.

Erregionalizaziorako erizpideak franko izanik, honea hautaketa xedearen arabera egiten da.

Estatutik kanpo, E.H.K.A.n iharduerarik izaten duten agente ekonomikoen merkatal-eragiketak ahal bezain ongi zehaztea litzateke gure helburua, agente hauek Estatuko beste lurraldeetan egindako ihardueraren ondokoetatik isladatuz. Alegia, E.H.K.A.n produzitutako ondasunen salmentak atzerrian, eta barneko produkzio-prozesura edo kontsumorako zuzendutako kanpo-erosketak.

Beraz, kanpoko salmentak erregionalizatzeko aukeratutako erizpidea jatorri-probintziarena izan da. Probintzi hau E.H.K.A.ko hiruretatik

bat izan behar da komunitate honetako *esportazioak* kontsidera daitezzen.

A.Z.O.ko erregistroetan 1982 urterarte jatorri-probintziari buruzko informazioa agertzen ez zenez aurreko urteetako esportazioak erregionalizatzeko helbide-fiskalaren erizpidea hartu behar izan zen.

Honek arazoak sortzen ditu. Alde batetik, E.H.K.A.n helbide-fiskala daukaten agente ekonomikoen esportazio guztiak, nahiz eta beste lurraldeetako ihardueraren ondorioz eraginak izan, euskal esportaziotzat jotzen ditugu. Beste aldetik, ez ditugu kontutan hartzen erregio honetan esportazio-iharduera daukatenak helbidea beste batekoa bada.

Jarraian, 1983. urterako egozpen-erizpide ezberdin bi hauek aplikatuz lortutako emaitzak azaltzen ditugu, esportaziorako zein inportaziorako (2. eta 3. koadroak).

Helbide-fiskalaren erizpidea erabiliz gero, E.H.K.A.ko esportazioen balorea txikiagoa da eta inportazioena haundiagoa beste erizpidearen aukeraketak ematen dituenekin konparatuz.

Honen esanahia zera da: helbide fiskala komunitate honetako ez izanik bertan iharduera ekonomikorik burutzen zuten agenteen esportazioak haundiagoak ziren, E.H.K.A.n helbidea izanik iharduerarik hemendik at egiten zuten agenteenak baino. Inportazioekin alderantzizkoa gertatzen zen.

## 2. Koadroa. E.H.K.A.Ko Kanpo-merkataritza (1983) (Erizpidea: Enpresaren helbide-fiskala)

(Milioi pzta.)

| LURRALDEA     | INPORTAZIOAK | ESPORTAZIOAK | SALDOA     |
|---------------|--------------|--------------|------------|
| ARABA.....    | 22.096,0     | 50.263,9     | 28.168,9   |
| BIZKAIA ..... | 374.875,0    | 219.200,5    | -155.674,5 |
| GIPUZKOA..... | 54.485,6     | 93.642,6     | 39.157,0   |
| E.H.K.A ..... | 451.456,6    | 363.107,0    | -88.349,6  |

*Iturria:* Eusko Jurlantzaren Ekonomi Ikerketarako Zuzendaritza (A.Z.O.ko datuetan oinarriturik).

### 3. Koadroa. E.H.K.A.ko Kanpo-merkataritza (1983) (Erizpidea: jatorri-helburu probintzia)

(Milioi pzta.)

| LURRALDEA      | IMPORTAZIOAK | ESPORTAZIOAK | SALDOA     |
|----------------|--------------|--------------|------------|
| ARABA.....     | 24.226,9     | 52.170,8     | 27.943,9   |
| BIZKAIA.....   | 335.333,5    | 216.508,2    | -118.825,3 |
| GIPUZKOA ..... | 77.554,7     | 121.460,0    | 43.905,3   |
| E.H.K.A .....  | 437.115,2    | 390.139,0    | -46.976,2  |

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomi Ikerketarako Zuzendaritza (A.Z.O.ko datuetan oinarriturik).

«Helbide» erizpideak, E.H.K.A.ko kasuan, esportazioak infrabalaratzeko eta inportazioak gainbalaratzeko joera agertzen du.

Nahiz eta erakutsitako emaitza globaletan diferentzia garrantzitsurik ez egon, lurraldeka aztertzen baditugu ezadostasun handiagoa azaltzen da, lehengo koadro bietan ikus daitekeenez.

Analisia gero eta xehatuagoa izan ezker, gero eta diferentzia gehiago azalduko dira erizpide bi hauen emaitzen artean. Sektore mailan adibidez, enpresa bakar baten kanpo-eragiketak kontutan hartzeak ala ez eragin haundia izan lezake emaitzetan.

«Jatorri-probintzia» erizpideak aipatutako arazoak ezabatu beharko lituzke guztiz. Hala ere, erregio batetan baino gehiagotan establezimenduak dauzkaten enpresek sarritan, zein probintzietan burutu den esportazio-eragiketa erakarri duen iharduera ez dute bereiztu eta ez dagokion probintziari egotzi diote. 1982. urtean jatorri-probintziaren informazioa gehitu ondoren sortu zen arazo hau, baina, badirudi denboraz konponduz joan dela.

Bestelako arazo bat, eta momentuz konponezina, erregioan esportazioari erantsitako balorea zehaztearena litzateke. Orain arte E.H.K.A.ko esportaziotzat jo ditugu bertan produkzio-prozesu osoa jasan dutenak zein beste erregio batzuetan bitarteko-prozesuak

erasan ondoren azkenengo eraldaketa komunitate honetan izan dutenak.

Jarraian, *inportazioen* erregionalizazioari ekingo diogu.

Hau egiteko, deklaraturako helburu-probintziari buruzko informazioaz baliatuko gara. Hala ere, E.H.K.A.ra benetan zuzendutakoak zehazterakoan arazoak sortzen zaizkigu, gorde daitezkeen kontsumoko ondasunekin nagusiki. Behin Estatuan sartuak inportazioen ondorengo banaketaz ez dakigu ezer. Beste erregio batetik sartu eta gero datozkigunak zehar-inportazioak deitzen ditugu. Banaketa-sareetaz ezer gutxi dakigulako azkenengo hauek hautematea oso zaila da.

Alde honetatik, ekipamendu edo inbertsio-ondasunen inportazioek, ez dute arazorik sortzen, Aduana-agirian aipatutako helburu-probintzia azkenengo destinokoa da eta.

E.H.K.A.ko inportazioak, destino-zuzenaren erizpidea jarraituz zehazten ditugu. Beraz, deklaraturako helburua komunitate honetako hiru lurraldeetatik bat denean bertako inportazioak izango dira, kontutan hartzeke eragiketaren egilea zein erregiotan dagoen kokatuta.

Esportazioen kasuan aztertu dugun bezalaxe, posible litzateke ere kanpo-erosketa hauek inportatzailearen «helbide» erizpidea jarraituz erregionalizatzea. Honek, jadanik aipatutako arazoak sortuko litziguke.

## 1.2. Aplikazioak eta Lan posibleak

Azaldutako metodologiaz erregionalizatutako datuek, erregioen kanpo-merkataritzaren herrialdekako eta sektorekako egitura exhaustiboki ezagutzeko bidea ematen dute, ondoren anitz ikerketa egin daitezkeela: espezializazio-mota, kanpo-menpekotasuna, merkatu-arterio nagusiak, kanpo-merkataritzaren ahuleziak eta sendotasunak, etab.

Halaber, eta eskuratzeko denbora-atzerapen eskasa kontutan izanik, oso adierazgailu lagungarria bihur daiteke kojuntura analisia egiterakoan. Eskeinitako desagregazio-maila zabalak input-beharretaz eta inbertsioko eta kontsumoko ondasunen eskariak ematen digu informazioa inportazioen bidez, eta euskal ekonomiaren konkurrentzialtasunaz esportazioen bidez.

A.Z.O.k eskeinitako informazio osoa aprobetxatuz, beste aplikazio askoren artean honako hauek egin litezke:

- Aduana-erregimen bakoitzaren garrantzia aztertu. E.H.K.A.n errefino-industria haundi bat kokatuta dagoenez, bere kanpo-merkataritzaren barnean petroleo eta antzeko produktuen partaidetza gailentzen da. Hauek, gehiengo baten «maquila» erregimenpean salerosten direnez argi dago aldagai honen arabera ikerketaren interesgarritasuna.
- Balio Baterakoien Indizeak (B.B.I.) E.H.K.A.rako kalkulatu, kanpo-merkataritzaren eboluzioa balore errealetan aztertu ahal izateko. Komunitate honetako eta Estatuko kanpo-merkataritzaren egiturak desberdinak izanik, ez dirudi egokirik Estatu mailan kalkulaturakoak erabiltzea.
- Erregioan kokaturiko aduanetatik sartzen eta irtetzen diren ondasunei buruzko informazioa. Hau erabilgarria izan liteke garraio-azpiegituren plangintzarako.
- Esportatzaileen eta Inportatzaileen Zentsoak. Promozio egitarauak diseinatzeko lagungarri.
- Elkartruke bilateralen analisiak.

## 2. KANPO-MERKATARITZAREN BESTE MAGNITUDE EKONOMIKOEKIKO ERLAZIOA

Kanpo-merkataritzaren datuak soilik erabiltzen dituzten ikerketaz gain, oso interesgarriak gertatzen dira hauek beste agregatu ekonomikoekin erlazionatuz egin daitezkeenak.

Holako ikerketak burutu orduko topatzen dugun arazorik nagusia, datuak erizpide ezberdinak jarraituz sailkaturik agertzea da: kanpo-merkataritzaren datuak Arantzel-Nomenklaturaren (NIXEME) arabera daude sailkaturik, eta agregatu ekonomiko gehienak berriz, Iharduera Ekonomikoen Sailkapen Nagusia (I.E.S.N.) jarraituz.

Beraz, egin beharreko lehenengo gauza bi sailkapen hauen arteko baliokidetasunak bilatzea litzateke.

### 2.1. I.E.S.N.erako Arantzel-Nomenklaturaren eraldaketa

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomi Ikerketarako Zuzendaritzak burutu duen eraldaketan, elkarbalioak NIXEME.ko posizio estatistiko (7 digito) eta I.E.S.N.eko talde (3 digito) mailan ezarri dira, E.H.K.A.ko kanpo-merkataritzaren produktu guztientzako.

Sailkapen bi hauen helburuak guztiz ezberdinak izanik, mota askotako arazoak sortzen dira elkartzeko orduan.

I.E.S.N.ek iharduera ekonomikoa hartzen du oinarritzat. Honen ondorioz, sektore batek ondasun bat baino gehiago produzitu dezake. Hau askotan baterako produkzioak daudelako gerta daiteke baina gehienetan, produktu fatalak, teknikoki beste baten produkzioari lotuta daudenak, agertzen direlako.

Arantzel-Sailkapena berriz, produktuen elaborazio-mailari dago lotuta, lehenengo multzo batetan erabilitako materialaren arabera (1-83 kapituluak) eta besteetan funtzioaren arabera (84-99 kapituluak).

Hau dela eta, bien arteko elkarbalioak zehazterakoan eragozpen handiak aurkitu dira.

Sortutako zenbait arazoei irtenbiderik emateko asmoz, ondorengo I.E.S.N.eko kode fiktizioak asmatu behar izan ditugu:

**Kodea    Textua**

- 225    Txatarrak.
- 320    Makineria eta Ekipamendu  
Mekaniko ez behezatigarriaren  
eraikuntza.
- 340    Makineria eta material elektriko  
ez behezatigarriaren fabrikazioa.
- 350    Material elektroniko ez  
behezatigarriaren fabrikazioa  
(ordenadoreena ezik).
- 998    Teknologia eta beste zerbitzu  
batzu.
- 999    Sailkatu-ezinak.

Txatarrak I.E.S.N.eko zerbitzu sektorearen barman aurkitzen dira, «Produktuen berreskurapena»-ren talde-sailan. Zerbitzuen kanpo-merkataritzaz beste daturik jasotzen ez dugunez kode berezia sortzea bidezkoa iruditu zaigu, hain zuzen ere 22.Talde-Sailan kokatu dugu, 225 kode fiktizioa emanez.

320, 340 eta 350 kodeak sortzeko arrazioa bestelakoa izan da. Arantzeleko zenbait posizioen eslepeina I.E.S.N.eko 3 digito mailan ezinezkoa zitzaigun, 2 digito mailan egitea bakarrik posible izanik.

«Teknologia eta beste zerbitzu batzu» (0011000) posizio estatistiko berria 1984. urtean sortu zen. Data honetararte ondasunei lotutako zerbitzu hauek Arantzelaren zehar agertzen ziren banaturik.

999 kodearen sorpenak zenbait posizio estatistikoei I.E.S.N.eko talderik asignatzearen ezintasunari erantzuten du.

## 2.2. Esportazio-Tasa eta Inportazioen Barneratze-Tasa

Azkenengo atal honetan kanpo-merkataritzaren datuak erabiliz, I.E.S.N en arabera sailkaturik izan ondoren, egin ahal diren aplikazio anitzetatik jarraian azaltzen duguna burutu dugu: Industri-sektore ez energetikoen esportazio-ahaleginei eta E.H.K.A.ko merkatuan kanpo-inportazioen barneketari buruzkoa.

Honetarako, E.H.K.A.ko kanpo-merkataritzaren eta produkzioaren datuak erlazioanatu ditugu, 42 sektoreetarako, segidan definituko ditugun adierazgailuen baloreak lortzeko:

— Esportazio-tasa: Sektore bakoitzeko produktuen esportazioen partaidetza bere produkzioan.

$$ET_i = \frac{X_i}{Q_i} \quad (i = 1, 2, \dots, 42)$$

non:  $ET_i$  =  $i$  sektorearen esportazio-tasa  
 $X_i$  =  $i$  sektoreko produktuen esportazioak  
 $Q_i$  =  $i$  sektorearen produkzioa.

Tasa honek sektoreek nazioarteko merkatuetan saltzeko egiten dituzten ahaleginak azaltzen dizkigu.

— Kanpo-Inportazioen Barneratze-tasa: Inportazio hauen eta barne-merkatuan aurkitzen diren bertako eta Estatutik kanpotiko baliabideen arteko erlazioa.

$$IT_i = \frac{M_i}{Q_i + M_i - X_i} \quad (i = 1, 2, \dots, 42)$$

non:  $IT_i$  =  $i$  sektoreko produktuen inportazio barneratze-tasa.

$M_i$  =  $i$  sektoreko produktuen inportazioak.

$Q_i$  =  $i$  sektorearen produkzioa.

$X_i$  =  $i$  sektoreko produktuen esportazioak.

E.H.K.A.k. Estatutik at bere industri-sektore ez energetikoen produkzioaren ia laurden bat (% 23,8) saldu zuen 1985 urtean. Beronek ekonomia honen Kanpo-irekitasun haundia erakusten du. Hau dela medio, nazioarteko merkatuen gorabeherak eragin haundia daukate euskal ekonomiaren eboluzioan.

Esportazio-tasaren analisiak sektoreen arteko diferentzia izugarriak azaltzen ditu: begietsitako sektoreetatik bederatzik bakarrik erakusten dute batz bestekoa baino tasa altuagoa. Hurrengo hauek gailentzen dira: Erreminta-makineria (% 71,0), Arrain-kontserbak (% 67,3), Kautxuzko eraldaketak (% 62,3) eta Siderurgia (% 41,9).

Bestalde, oso tasa txikiekin, Janari-industria gehienak: Esnekiak (% 0,06), Okintza eta errotaritzakoak (% 1,3),... eta Galdategiak (% 3,8), Forjaketa (% 1,9) eta Metalezko eraikuntzak (% 4,8) aurkitzen ditugu.

#### 4. Koadroa. E.A.K.A.ko Industri-sektore ez energetikoen produkzioa eta kanpo-merkataritza (1985)

(Milioi Pta.)

| PRODUKZIOA                                | PRODUKZIOA       | ESPORTAZIOA      | INPORTAZIOA      | ESPORTAZIO-TASA (%) | BARNERATZE-TASA (%) |
|-------------------------------------------|------------------|------------------|------------------|---------------------|---------------------|
| 01 Ikatzak .....                          | 0                | 0,0              | 11.120,2         | —                   | 100,00              |
| 02 Material erradioaktiboa                | 0                | 0,0              | 1,3              | —                   | 100,00              |
| 03 Metalezko mineralak ..                 | 5.867            | 19,2             | 4.185,5          | 0,33                | 41,72               |
| 04 Siderurgia .....                       | 383.018          | 160.491,8        | 81.541,2         | 41,90               | 26,82               |
| 05 Ez-burdinazko metalurgia .....         | 55.230           | 10.891,8         | 13.651,1         | 19,72               | 23,54               |
| 06 Ez-metalezko mineralak                 | 8.001            | 382,3            | 4.728,5          | 4,78                | 38,30               |
| 07 Zementuak .....                        | 8.687            | 1.390,2          | 222,7            | 16,00               | 2,96                |
| 08 Beira .....                            | 20.841           | 3.219,9          | 1.170,8          | 15,45               | 6,23                |
| 09 Bestelako ez-metalezkoak .....         | 30.855           | 3.583,7          | 3.173,7          | 11,61               | 10,42               |
| 10 Oinarrizko kimika .....                | 48.495           | 10.376,9         | 25.826,9         | 21,40               | 40,39               |
| 11 Kimika industriala .....               | 73.019           | 10.255,5         | 5.924,8          | 14,04               | 8,63                |
| 12 Azken kimika .....                     | 20.862           | 3.214,4          | 406,9            | 15,41               | 2,25                |
| 13 Galdategiak .....                      | 62.264           | 2.382,3          | 4,5              | 3,83                | 0,01                |
| 14 Forjaketa eta estanzioa .....          | 49.304           | 957,6            | 209,6            | 1,94                | 0,43                |
| 15 Metalezko eraikuntza ..                | 50.493           | 2.444,2          | 1.029,8          | 4,84                | 2,10                |
| 16 Metalezko artikulua ..                 | 174.116          | 45.270,5         | 6.020,9          | 26,00               | 4,46                |
| 17 Makina erremintak .....                | 39.982           | 28.374,5         | 5.241,2          | 70,97               | 31,11               |
| 18 Bestelako makineria ..                 | 118.635          | 27.045,5         | 19.360,7         | 22,80               | 17,45               |
| 19 Bulego-makinak eta doitasunezkoa ..... | 6.550            | 2.272,1          | 4.441,5          | 34,69               | 50,94               |
| 20 Etxetresna elektrikoak                 | 49.741           | 8.778,3          | 689,7            | 17,65               | 1,66                |
| 21 Bestelako material elektriko .....     | 75.923           | 8.299,8          | 9.622,2          | 10,93               | 12,46               |
| 22 Automobilak eta piezak                 | 60.658           | 13.646,8         | 2.654,1          | 22,50               | 5,34                |
| 23 Untzigintza .....                      | 32.543           | 8.591,5          | 2.043,9          | 26,40               | 7,86                |
| 24 Bestelako garraio-materiala .....      | 24.387           | 10.713,5         | 1.510,3          | 43,93               | 9,95                |
| 25 Harakintza .....                       | 23.881           | 832,6            | 1.616,7          | 3,49                | 6,55                |
| 26 Esnekien industriak ..                 | 21.311           | 13,0             | 235,4            | 0,06                | 1,09                |
| 27 Arrain-kontserbak .....                | 15.595           | 10.492,1         | 5.530,5          | 67,28               | 52,01               |
| 28 Okintza eta errotaritza                | 17.220           | 217,7            | 30,3             | 1,26                | 0,18                |
| 29 Txokolatea .....                       | 12.936           | 550,4            | 313,9            | 4,25                | 2,47                |
| 30 Bestelako janari-industriak .....      | 51.695           | 6.063,6          | 2.775,6          | 11,73               | 5,73                |
| 31 Edariak .....                          | 29.355           | 2.261,1          | 265,9            | 7,70                | 0,97                |
| 32 Tabakoa .....                          | 8.295            | 13,5             | 0,1              | 0,16                | 0,00                |
| 33 Ehungintza .....                       | 18.496           | 1.786,3          | 2.779,9          | 9,66                | 14,26               |
| 34 Jantzigintza .....                     | 12.112           | 249,9            | 574,2            | 2,06                | 4,62                |
| 35 Larrua eta oinetakoak                  | 6.069            | 977,4            | 261,2            | 16,10               | 4,88                |
| 36 Egurra .....                           | 26.940           | 1.671,1          | 2.833,5          | 6,20                | 10,08               |
| 37 Zurezko altzariak .....                | 34.254           | 2.476,0          | 168,8            | 7,23                | 0,53                |
| 38 Papera .....                           | 104.592          | 9.009,4          | 13.260,9         | 8,61                | 12,18               |
| 39 Arte grafikoak .....                   | 35.699           | 2.968,6          | 107,0            | 8,32                | 0,33                |
| 40 Kautxua eta pneumatikoak .....         | 85.327           | 53.121,4         | 2.859,3          | 62,26               | 8,15                |
| 41 Plastikozko artikulua ..               | 39.906           | 1.948,1          | 882,4            | 4,88                | 2,27                |
| 42 Bestelako manufaktura .....            | 8.132            | 6.727,7          | 6.799,0          | 82,73               | 82,88               |
| <b>GUZTIRA .....</b>                      | <b>1.951.286</b> | <b>463.982,1</b> | <b>246.076,7</b> | <b>23,78</b>        | <b>14,20</b>        |

Iturria: Ekonomi Ikerketarako Zuzendaritza. E.H.K.A.ko Industri Kontuak, 1985 (E.E.-E.) eta A.Z.O.

Batazbesteko kanpo-inportazioen barneratze-tasa 1985. urtean % 14,2 portzentaira heldu zen. Esportazio-tasarekin gertatzen zen bezalaxe, ezadostasun handiak agertzen dira sektoreka.

E.H.K.A.n produkzioz daukaten sektoreetatik barneratze-tasarik haundienak hauei dagozkie: Mineral Metalezkoak (% 41,7), Oinarritzako Kimika (% 40,4), Bulego-Makina eta

Doitasunezko tresnen fabrikazioa (% 50,9) eta Arrain-Kontxerbak (% 52,0).

Goian beren esportazio-tasa eskasagatik aipatu ditugun sektoreak, eta barneratze-tasa txikia erakusten dutenak berberak dira.

Barneko edota Estatuko merkatuarekiko heuren menpekotasun haundiagoak erakarri ditu sektore hauentzako lortutako emaitzak.

#### BIBLIOGRAFÍA

AZPIAZU P., GALARRAGA X., LEOZ V. (1983), «Panorámica reciente del comercio exterior de la Comunidad Autónoma del País Vasco», ICE - Junio 1983.

GONZALEZ GARCÍA, J.L. (1986), «La regionalización del comercio exterior: experiencias y posibilidades», ICE - Octubre 1986.

FARIÑAS, J.C., MARTIN, C. (1987), «Comercio Internacional y Organización Industrial: El problema de las estadísticas de base en España», Investigaciones Económicas, Vol. XI, n. 2, 1987.

EUSKO JAURLARITZA (1986), «E.H.K.A.ko Kanpo Merkataritza, I.E.S.N. Nomenklatura, 1979-1984». Vitoria-Gasteiz - 1986.